

## GIL 46 Sobrongo arroilaren serie estratigrafikoa



Sobrongo antiklinalaren hegoaldeko itxitura marrazten duten gailur-azaleratze kretazeo eta paleozenoen panoramika.

### Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 45' 53,07 " N

Long.: 3° 5' 23,86" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 484.184,85 m

Y: 4.784.796,92 m



### Nola iritsi

A-2122 errepidean zeharreko ibilbidea, Bachicaboko bidegurutzearen eta Tobalinillaren bidegurutzearen artean, 47 eta 55 kilometro-puntuen artean.



Oligozenoko lutita, hareharri eta konglomeratu kontinentalen azaleratzearen xehetasuna.

## GILaren deskribapen laburra

Valderejo-Sobrón antiklinalaren hegoaldeko muturraren ebaki osoa. Erradio handiko toles bat da; ekialdeko alpea bertikala da, eta mendebaldekoa ekialderantz okertuta dago. Alde batera eta bestera, dagozkion arro kontinental diskordanteak antolatu ziren (Tobalina eta Miranda-Trebiñu). Ekialdetik hasita, ebakiaren lehen kilometroa geruza bertikalen tarte bati dagokio; geruzetan, Tertiario kontinentaleko (Oligozeno eta Miozeno) konglomeratu eta limoliten (gainean) eta Tertiario itsastarreko (Paleozeno eta Eozeno) kareharri eta dolomien (azpian) arteko diskordantzia nabari da; dolomiek gailur-azaleratze bertikal gorritzat deigarri bat eratzen dute. Sekuentziak bertikal jarraitzen du Sobrón herriaren sarreraraino; han, Santoniarreko kareharriak eta tuparriak azaleratzen hasten dira ekialderantzko okerdura txikiarekin.

Sobrón herriaren gehiena Coniaciarreko kareharrien gainean asentatuta dago.

7 km-ko sekzioa morfologiaren agerpen aparta da: gailur-azaleratzeak, erliebe alderantzizatuak eta bloke hektometriko kolapsatu eta irristatuak ageri dira. Gailur-azaleratzerik deigarrienak Valderejo-Sobrón egitura antiklinalaren alpe bertikaleko material karedunei dagozkie. Gailur-azaleratze horiek Torremolinosko meandroaren eraketa baldintzatzen dute, eta meandro horrek aukera ematen du litologia guztiak ikusteko Ebroen ibilguan. Aurrerago, bainu-etxe zaharraren inguruetan, kalkarenita Lacazinadunen geruza taula erako horizontal bat agertzen da. Presa Coniaciarreko kareharrietan ainguratuta dago. Hegoalderantz, Burgosko aldean, kareharri horiek antiklinalaren zona gorena marrazten dute okerdura ia horizontalarekin.



Dolomia paleozenoen gailur-azaleratzea.

Interes estratigrafikoaz gainera, aipatzekoa da badirela zenbait elementu geomorfologiko nabarmen ere.

Presatik 1 km-ra, blokeen irristadura handi bat dago, kareharri coniaciarrena. Tunelen ingurura iristean, ondoz ondoko hiru geruza ezagutzen dira: Cenomaniarrekoa, Coniaciarrekoa eta Santoniarrekoa (Lacazinako kareharriak): "V" formako morfologia bana eta aldapa bana eratzen dute antiklinalaren mendebaldeko alpean.

Ekialdeko alpearen gaineko aldapak; "V" formako morfologia bikainak eratzen dituzte. Tobalinillara joateko zubiak —Burgosen— sekzioaren amaiera adierazten du, baina, ehunka metro batzuk aurrera joanda, sektore horretan garatutako *chevronen* ikuspegi ikusgarri bat lortzen da.

Presaren inguruetan antzinako bi zundaketa-putzu daude (Sobrón 1 eta 2), ur-begi garrantzitsuak direnak.

## Behatzeko punturik onena

Errepidean zehar.

## Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 72, GIL 76, GIL 86.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 47, GIL 121, GIL 122.

## Valoración del LIG

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala			●	
	Estratigrafikoa				●
	Paleontologikoa	●			
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean	Potentziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b>					
<b>Oharrak:</b>	Inguruneak badu interes geomorfologikoa ere, GIL 76an tratatua.				

## Bibliografia espezifikoa

- EVE 137-I
- Martínez-Torres, L. M. (1997). *Transversal a la Cuenca Vasco-Cantábrica. Introducción a la estructura y evolución geodinámica*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 121. or. ISBN: 84-7585-927-5.
- Merino, A.; Martínez-Torres, L. M., Eguiluz, L. eta Lago, M. (1995). "Análisis de la fracturación post-alpina de la Cuenca Terciaria de Miranda-Treviño (Cuenca Vasco-Cantábrica)". *Estudios del Museo de Ciencias Naturales de Alava*, 10-11, 61-70.